



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Ainhoa Bereau Altxu
Naiara Arretxea Gorosterrazu

2025eko azaroaren 26an, 15:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengo erabaki du:

1.- 2025eko irailaren 30ko akta onartzea.

2. 2024KO KONTUEN IXTEA.

2024ko kontuen espedientea aztertu ostean, udalbatzak Kontuen Batzorde Berezia gisa arituz, aho batez hurrengo erabaki du:

1.- Aldeko txostena ematea 2024ko kontuei.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3.- Erakustaldi publikoaren berri eman Udaletxeko iragarki-taulan.

3. AURREKONTU ALDAKETA 1/2025.

Kontuhartzaileak 1/2025 aurrekontu aldaketaren, inguruan egindako txostena aurkeztu du, dirusarrerak sortutako kreditua. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-48000 FAMILIEN TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....36.911,00€



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1-870000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			1.039,87€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidara bideratzea proposatzen da:

1-1522-6220003 MENDAUR.....	37.950,87 €
-----------------------------	-------------

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengoahoa batez erabaki du:**

1.- 1/2025 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.

**2.-1/2025 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-
taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.**

4. AURREKONTU ALDAKETA 2/2025.

Kontuhartzaileak 2/2025 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du, kreditu gehigarria. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000	DIRUZAINZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			26.250,00€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidara bideratzea proposatzen da:

1-1522-622001	SUKALDE	ETA	GANBARA
ERABERRITZEA.....			26.250,00 €

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengoahoa batez erabaki du:**

1.- 2/2025 aurrekontu aldaketari hasierako onespina ematea.

**2.-2/2025 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko irgaraki-
taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.**



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

5. AURREKONTU ALDAKETA 3/2025.

Kontuhartzaileak 3/2025 aurrekontu aldaketaren inguruan egindako txostena aurkeztu du, kreditu gehigarria. Txostenean proposatzen den aurrekontu aldaketa ondorengo hau da:

Alde batetik, diru-sarrera partida hau izango litzateke:

1-870000	DIRUZAINTZAKO	GERAKINA	GASTU
OROKORRETARAKO.....			35.248,21€

Eta aipaturiko diru sarrera hurrengo gastu partidara bideratzea proposatzen da:

1-4121-69000	MENDI LANAK.....	35.248,21 €
--------------	------------------	-------------

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengo aho batez erabaki du:**

1.- 3/2025 aurrekontu aldaketari hasierako onespena ematea.

2.- 3/2025 aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez Udaletxeko iragaraki-taulan argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

6. 2026KO TASAK.

Udalburuak 2026ko zerga, tasa eta prezio publikoak aurkeztu egin ditu. Aurkeztutako 2026ko zerga, tasa eta prezio publikoak, 2025koen berdina dira, hurrengo aldaketekin:

- Tarifa A-1. Horniduraren kuota aldakorra atalean, etxeko erabilerako hornidura 10 metro kubiko bitartean 4 euro izatea.
- 60 metro kubiko artekoa 0.38tik 0,40 euros/metro kubikoa.
- Tarifa A-2 (komertzial eta industri erabilerako) 60 metro kubiko artekoa 0.43tik 0,45 euros/metro kubikoa.

Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1.- 2026ko zerga, tasa eta prezio publikoak onartzea.

2.- 2026ko zerga, tasa eta prezio publikoak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

7. UDALBATZAKO KIDEENDAKO ORDAINSARIAK

Ikusirik zer xedatzen duen Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 75. artikulua udalbatzetako kideen dedikazioaz eta ordainsariez, eta jarraikiz Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduari, zehazki 13. artikuluari.

Ikusirik Kontuhartzaileak egindako txostena eta emandako azalpenak,

Aho batez erabakitzen da:

Lehenbizikoa.—Udalkideen ordainsarien araubidea aldatzea, honela:

—Dedikazio partzialik gabeko kideak: 120 euro, Udaleko osoko bilkura bakoitzera benetan bertaratzeagatik eta 70 euro komisioetan parte hartzeagatik.

—Karguan aritzean sortutako gastu efektiboen kalte-ordainak agiri bidez justifikatu beharko dira. Norberaren ibilgailuan egindako bidaia-gastuengatik, urtero onartzen diren administrazio publikoko langileen ordainsarrietan ezarritakoaren arabera ordainduko da.

Bigarrena.—Adieraztea zenbateko horiei aplikatuko zaiela egoki den atxikipena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela-eta, indarra duen legeriaren arabera.

Hirugarrena.—Akordioa 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta Osoko Bilkurak zentzu horretan beste akordio bat hartu arte egongo da indarrean.

Laugarrena.—Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitaratu beharko da.

8.- 2025EKO AZAROAK 25 – EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

INDARKERIA MATXISTA DIGITALAK BADITU ONDORIO ERREALAK

Berriro ere, azaroaren 25ean, Nafarroako toki eta lurralde entitateek ahotsa altxatzen dugu emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiak gaitzesteko. Indarkeriarik gabeko mundu bat aldarrikatzen dugu, non emakumeak eta neskak beldurrik gabe, askatasunez eta eskubideen berme osoz bizi daitezkeen.

Aurten, indarkeria-mota berrienetako, eta, aldi berean, ikusezinenetako batean jarriko dugu arreta: nesken eta emakumeen aurkako indarkeria digitala. "INDARKERIA MATXISTA DIGITALAK BADITU ONDORIO ERREALAK" lelopean, azpimarratu nahi dugu Interneten eta ingurune digitaletan gertatzen denak ondorio sakon, ukigarri eta mingarriak dituela eta ezin dela alde batera utzi. Indarkeria matxista aldatu egiten da eta garaietara egokitzen da, baina gure aldarrikapenak eta gaitzespenak ukiezinak izaten jarraitzen dute.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Gaur egun, ez dago indarkeria digitalaren definizio unibertsal bakar eta uniformerik. Eboluzioan dagoen kontzeptu bat da, teknologia berrien, ingurune digitalen, sare sozialen edo Interneten bidez eragindako indarkeria matxistako jokabideak biltzen dituen. Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak indarkeria digitala eraso-modu lehenetsizat hartu du berriki, eta neurri espezifikoak hartu ditu indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta zigortzeko.

Askatasuna, osotasun fisikoa eta morala, berdintasuna eta duintasuna bezalako oinarritzko eskubideak urratzeaz gain, indarkeria mota hori haratago doa eta emakume gazteei eta espazio publikoan parte hartzen dutenei eragiten die bereziki. Era askotara agertzen da: ziberjazarpena eta gorroto-diskurtsoak, bikotearen kontrol digitala, onartu gabeko sextinga, groominga, sextorsioa, deepfakea bidezko irudien manipulazioa edo "mendeku pornografia" delakoa.

Inpaktuak sakonak eta errealak dira: antsietatea, depresioa, isolamendua, autozentsura eta espazio digitalak uztea. Indarkeria honek emakume gazteen ahotsak isiltzen ditu eta esfera publikoan duten parte-hartzea mugatzen du, genero-desberdintasunak indartuz. Indarkeria birtualak ondorio nabariak ditu, milaka emakumeren osasunean, segurtasunean eta bizi-aukeretan eragiten dutenak.

Datuak kezkagarriak dira eta arazoaren garrantzia berresten dute. NBEk adierazi du mundu mailan emakumeen % 73k baino gehiagok jasan duela indarkeria Interneten, eta 18 eta 24 urte bitarteko neska gazteek jazarpen, sexu-jazarpen eta mehatxu fisikoak jasateko arrisku handia dutela. Europar Batasuneko 28 herrialdeetan, bederatzi milioi emakumek jasan dute lineako indarkeria 15 urte zituztenetik. Gainera, bostetik bat online jazarpena eta abusua zigortzeko aukera gutxi duten herrialdeetan bizi da. Era berean, indarkeria digitalaren biktima izan direnen % 28k Interneteko jardura nahita murriztea erabaki dute, eta sexu-edukia duten irudi intimoak baimenik gabe zabaltzen dituzten biktimen % 90 emakumeak dira.

Horregatik, Nafarroako toki eta lurralde entitateek konpromiso hauek hartzen dituzte:

1. Emakumeen aurkako indarkeria digitala indarkeria matxista gisa onartzea.
2. Tokiko eta lurraldeko eremuan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzea (polizia, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, etab.), indarkeria digitaleko kasuak goiz eta eraginkortasunez antzeman eta jardun ahal izan dezaten.
3. Herritarrei, bereziki gazteei eta nerabeei, zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak sustatzea, teknologien erabilera arduratsu eta seguruari buruz, genero-ikuspegitik.
4. Indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko espazio digitalak sustatzea, ikastetxeekin, komunikabideekin eta herri eragileekin elkarlanean.
5. Indarkeria digitalaren biktima diren emakumeen arretarako baliabide eta protokolo espezifikoak bultzatzea.
6. Beste erakunde, sare, elkarte eta mugimendu feminista batzuekin lankidetzan aritzea, indarkeria matxista digitala desagerrarazteko bidean modu koordinatuan aurrera egiteko.
7. Indarkeria matxista digitalaren prebentzioa, detekzioa, arreta eta erreparazioa sustatzen duten tokiko politika publikoak ezartzea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Azaroak 25 honetan, gizarte osoa gonbidatzen dugu rol aktiboa har dezan ingurune digital, benetan aske, berdintasunezko eta segurua eraikitzeko. Konpromiso kolektiboaren bidez bakarrik lortu ahal izango dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea.

9. UDAL PLAN OROKORRA BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

Iturengo Udal Plan Orokorra 2023ko apirilaren 3 an hasiera batez onartu zen Iturengo osoko bilkuran. Nafarroako Aldizkari Ofizialean 2023ko apirilaren 27an argitaratu zen eta hilabete bateko epea ireki zen alegazioak aurkezteko. Udal Plan Orokorra Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendura bidali zen aldeko txostena eskatuz.

39/2015, urriaren 1koa, 22 artikuluan Herri Administrazioa Prozedura Erkideari buruzkoa eta Nafarroako Foru Komunitateko Antolamenduaro buruzko Foru legearen Testu Bateginaren 71. Artikuluan ezarrita dagoenez, erantzuteko bi hilabeteko epea dago baina epe hori mozten da, Nafar gobernuko beste departamentuei txostena eskatzen dielako aldi berean.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren txosten orokorrari eta arloen txostenei Udal arkitektuek aurkeztutako erantzuna aztertzen da. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Udal arkitektuek Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren txosten orokorrari eta arloen txostenei emandako erantzuna onartzea.

2.- Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari bidaltzea behin betiko onespena eskatuz.

10. HIRIGINTZA IZAPIDEENGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuk gaia azaldu du, Hirigintzako izapideengatiko tasak gaureguneratu beharra dago. Proposatzen diren aldaketak ikusita Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Iturengo Hirigintza tasa ordenantzaren hasierko aldaketa.

2.- Aldaketak erakustaldi publikoan jartzea 30 egunez NAO-n argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

11. ESKAERAK

11.1 Iker Antolin Aguirre jaunak Apeztiko bordako jabea izanik, ondoan dagoen lurzatiaren egoera berriro zalatzen du; Iturengo 2. poligonoko 349.lurzatia (komunala dena) sastraka beterik dagoelako eta bi lurzatia banatzen duen hormaren harri batzuk erortzen ari direlako. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Aipatutako lursatia, Iturengo udalak udaberria baino lehen garbituko du. Bertan, eskolako haurrak zuhaitzen landaketa egiteko asmoa dago.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

11.2 Ainara Mindegia Baleztena andreak, Aurtizko gurasoen izenean, Eguberritako arbola jartzeko baimena eskatzen du. Arbola mozteko baimena, pasadan urteko leku berdinean jartzeko baimena eta farolako argia hartzeko.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskaera onartzea. Arbola mozteko Jose Maria Alzuri mendi zinegotziarekin egon beharko dira.

2.- Herri langileak farolatik argiaren konexioa egingo du.

3.- Mantenimendua eta garbiketa gurasoen gain geratuko da.

4.- Udaletxeak ez du erantzunik izango sortu daitezkeen kalteengatik.

5.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

11.3. Euskal Herrian Euskaraz herri mugimenduak ekarpen ekonomikoa eskatzen du. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- 100 euroko ekarpen ekonomikoa egitea.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

11.4.- Martin Tellechea Mariezcurrena jaunak 3.poligonoko 310.lurzatia harrizko hormaz ixtea, dagoen horma harriz forratzea eta farolak paratzeko lizentzia eskatzen du. Betilan eraikuntzak, S.L. enpresaren aurrekontua aurkezten du. Indarrean dagoen araudia ikusirik eta gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.- 3.poligonoko 310.lurzatia harrizko hormarekin ixteko baimena ematea, 2023ko azaroaren 23an sinatutako "Acta de replanteo"an ezarritakoa kontutan hartuta eta onartutako urbanizazio proiekturen arabera, batez ere udal arkitektuen 2023ko apirilaren 4ko txostenaren 2.puntuan ezarritakoa.

2.- Farola jartzeko baimena ematea.

3.- Eginda dagoen hormigonezko horma ezin da harriz forratu, Iturengo Plan Orokorrak behin betiko onarpena jaso arte.

4.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 5.870,00 eurokoa da eta 176,10 euro ordaindu beharreko diru-kopurua (Aurrekontu osoa onartzen da eta horma legeztatzerakoan ez da ICIOrik eskatuko).

5.- Eskatu den obra baino gehiago ez egin; espediente zigortzailea irekiko da lizentziarik gabeko obrak egiten badira eta emandako lizentzia betetzen ez bada.

6.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

12.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (83/2025- 99/2025 ebazpenak).

13.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Kantauri Konfederazio Hidrografikoaren ebazpena Sagardiko iturria komunitatea espedientea hasiz,, Electra Salteari baimena emanaz--- Mizkerrenea turismon alta emanaz--Uraren kalitatea-- Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Ingurumeneko departamentuak emandako baimena; J.I.G.

14.- GALDE-ESKEAK.

Ez daude galdera eskaerarik.

Eta bertzerik ezean, 16:20ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.